

# ConfeBask

Somos empresa vasca.  
Euskal enpresa gara.

## Euskadiko Lanbide Heziketa Dual berria: orokorra eta intentsiboa

Enpresa, Eusko Jaurlaritzatik, Confebasketik eta Lanbide Heziketako zentroetatik; behar dituzun profesionalak trebatzera eta bat egitera animatzen zaitugu.

**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**Fp**  
EUSKADI  
LANBIDE HEZIKETA

*Enpresa Hobe*  
**ADEGI**  
*Gizarte Hobe*

**CEBEK**  
Confederación  
Empresarial de  
Bizkaia

Bizkaiko  
Enpresarien  
Konfederazioa

**SE** EMPRESAS ARABAKO  
ALAVESAS ENPRESAK

# Lanbide Heziketa DUAL berria

Lanbide Heziketako Lege berria indarrean sartzearekin batera, **Enpresako Prestakuntza Praktikoa izaera duala** hartzen du heziketa-ziklo guztietan eta lehenengo mailatik aurrera.

24/25 ikasturtetik aurrera, **lantokiko prestakuntzaren desagerpenarekin bat, bi modalitate ezarri dira: dual orokorra eta dual intentsiboa**, iraupena, enpresan lortzen den curriculumaren ehunekoa eta prestakuntzan dagoen pertsonaren eta enpresaren arteko harremanaren arabera.

## LH DUAL OROKORRA

- Prestakuntzaren %25 - %35aren artean enpresan egiten da.
- Enpresan ikaskuntza-emaitzen %10 eta %20 bitartean garatzen da; baita horien balorazioa ere.
- Enpresarekin lan-harremanik ez dago.



## LH DUAL INTENTSIBOA

- Enpresan egiten den prestakuntzaren %35 - %50ren artekoa izango da.
- Enpresan, gutxienez, ikaskuntza-emaitzen eta horien balorazioaren % 30 garatzen da.
- Ikas-ekinezko prestakuntza-kontratu bat edo enpresak ordaindutako beka bat dago.

## 1. maila

### *DUAL OROKORRA*

- ✓ 16 egun enpresan
- ✓ Adinez nagusiek 8 ordu/egun, **128 ordu**
- ✓ Adin txikikoek 7 ordu/egun, 112 ordu

**Hasiera-data:**  
1. hiruhilekotik aurrera  
Ikastetxe bakoitzaren  
antolaketaren arabera

## 2. maila

### *DUAL OROKORRA*

- ✓ 60 egun enpresan
- ✓ Adinez nagusiak 8 ordu/egun, **480 ordu**
- ✓ Adin txikikoek 7 ordu/egun, 420 ordu

**Hasiera-data:**  
Ikastetxe bakoitzaren  
antolaketaren arabera

### *DUAL INTENTSIBOA*

- Enpresan egiten diren orduak:
- ✓ Gutxienez **770** – **1.100 ordu** gehienez

**Hasiera-data:**  
Ekainean, uztailean,  
irailean edo urrian has  
daiteke

# LP, Dual OROKORRA eta INTENTSIBOAREN arteko aldeak

Desagertzen den LParen eta DUAL OROKORRA eta INTENTSIBO modalitate berrien arteko desberdintasun nagusiak.

ASPEKTUA	HELBURUA NAGUSIA	IRAUPENA	ENPRESAREKIKO LOTURA	GIZARTE SEGURANTZAN ALTA EMATEA	ORDAINKETA	ENPRESAN ESKURATU BEHARREKO PRESTAKUNTZAREN % (ikaskuntzaren emaitzak)	ENPRESAREN GARRANTZIA
LP DESAGERTUTA	Prestakuntza enpresan egindako egonaldi batekin osatzen da	360-380 ordu (2. mailan bakarrik)	Ez dago lan-harremanik	BAI. Eusko Jaurlaritzak kudeatu eta ordaintzen du	Ordaindu gabea	-	Gainbegiratzen eta orientatzen du, baina prestakuntza batez ere ikastetxearena da
Dual OROKORRA	Ikaskuntza ingurune erreal batean, enpresan	500 - 750 ordu (1. eta 2. maila artean)	Ez dago lan-harremanik	BAI. Eusko Jaurlaritzak kudeatu eta ordaintzen du	Ordaindu gabea	%10-20	Enpresak pisu handiagoa hartzen du ikaslearen prestakuntzan
Dual INTENTSIBOA	Ikasketa espezializatuagoa eta enpresaren beharretara egokitua	900 - 1300 ordu (1. eta 2. maila artean)	Ikas-ekinezko prestakuntza-kontratua edo beka	BAI. Enpresak kudeatzen eta ordaintzen du (hobariduna)	Bai, kontratuaren edo bekaren arabera, lan egindako denboraren arabera	≥ %30	EnpresaK prestatzaile gisa protagonismo handiagoa du: prestakuntza eta espezializazio handiagoa



## ENPRESAK

- ✓ Talentu berria hautatzeko eta erakartzeko tresna da.
- ✓ Beren behar zehatzetara hobeto egokitutako langile kualifikatuak prestatzen ditu; enpresaren neurrira egindako prestakuntza-plan baten bidez.
- ✓ Enpresarentzat interesgarria den prestakuntza osagarria sartzeko aukera ematen du.
- ✓ Enpresan belaunaldien arteko erreleboa errazten du.
- ✓ Etorkizuneko langile ondo kualifikatuak eta haien beharretara egokituak izatea ahalbidetzen du.
- ✓ Enpresaren balioak eta kultura bezain garrantzitsuak diren «ukiezinak» transmititzea ahalbidetzen du.
- ✓ Lanbide Heziketa Duala bere gizarte-erantzukizuneko politikan sartzea.
- ✓ Bilketa eta hautaketa-kostuak aurreztea.
- ✓ Enpresa hezkuntza-mundura hurbiltzen du.
- ✓ Enpresaren marka-irudia hobetzen du.
- ✓ Enpresaren lehiakortasuna hobetzen du, "begirada" berriekin eta gauzak egiteko modu berriekin talentu gaztea gehitzen baitu.

## PRESTAKUN- TZA DUALAREN ABANTAILAK



## IKASLEAK


- ✓ Enpresarekiko lehen harremana; lan-merkatuan sartzea errazten du.
- ✓ Motibazioa eta bere buruarekiko konfiantza areagotzen ditu, enpresek eskatutako lanbideetan kualifikatzen delako eta errealitate praktikora bideratutako hezkuntza jasotzen duelako.
- ✓ Lan-eremuan beharrezkoak diren trebetasunak eta gaitasunak garatzen ditu, zeharkakoak barne (komunikazioa, talde-lana, arazoak konpontzea...).
- ✓ Pentsamolde-aldaketa lan-munduan goiz sartzeagatik dago; ikasteko eta lan egiteko motibazioa hobetuz.
- ✓ Gizarte Segurantzian kotizatzen du eta ordainsaria jaso dezake.
- ✓ Bere jarduerari dagozkion erantzukizunak hartzen ditu, gizartean eta lanean parte hartzen duelako.
- ✓ Ikastetxean eskuratzen ari den gaitasunen osagarri praktikoa da.



## INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Lanbide Heziketa Dual berrian interesa duten enpresek informazio hau jaso dezakete:

- ✓ ADEGI, CEBEK eta SEA arabako enpresak, Enpresa-erakundeetan.
- ✓ EAEko Lanbide Heziketako ikastetxeetan.
- ✓ [empresafpeuskadi@confebask.es](mailto:empresafpeuskadi@confebask.es)



[www.fpeuskadidual.eus](http://www.fpeuskadidual.eus)

Enpresa Hobea  
**ADEGI**  
Gizarte Hobea

**CEBEK**  
Confederación  
Empresarial de  
Bizkaia  
Bizkaiko  
Enpresarien  
Konfederazioa

se  
EMPRESAS  
ALAVESAS | ARABAKO  
ENPRESAK

